



## ZIURTAGIRIA JASO DUTEN ENTITATEAK: ENTIDADES QUE HAN OBTENIDO EL CERTIFICADO:

### \*BIDEAN:

1. Andromeda Belardenda/  
Herbolario Andromeda
2. Aritza Guraso Elkarte/  
Apyma Aritza
3. Barañáin Auditorioa Fundazioa/  
Fundación Auditorio Barañáin
4. Barañáingo Emakumeen Taldea/  
Vocalía de la Mujer
5. Barañáingo Euskal Kantak
6. Barañáingo Gizarte Eskola/  
Escuela Social de Barañáin
7. Barañáingo Trikitilari Eskola
8. Centro veterinario ABODI
9. Coral Barañáin Abesbatza
10. Farmacia Cubillas Botika
11. Elektronika Barañáin
12. Eroski Bidaia/Viajes Eroski S. Coop.
13. Euskadiko Kutxa/Caja Laboral
14. Gogorza Anaiaak harategia/  
Carnicería Gogorza Hermanos
15. Gortinak Garmi/Cortinas Garmi
16. Harizti Barañáingo Dantza Taldea

17. Iratxo Taberna
18. Jade Estetika Zentroa
19. Kaioa Taberna
20. Kukuma Gozo-denda/  
Tienda de chucherías Kukuma
21. Los Porches Taberna
22. Lur Gorri Taberna Jatetxea
23. Mugarri Guraso Elkarte
24. Muruzabal Bizikletak/  
Bicicletas Muruzabal
25. Sada Hartz Klinika/  
Clínica dental Sada
26. Sidrería Auzmendi Sagardotegia
27. Sociedad de Prevención Fremap S.L.U.
28. Studio Liburudenda/Librería
29. Tecniauto Auto Tailerra/  
Taller de coches Tecniauto
30. Txaranga Igandea

### \*ZERBITZUA EUSKARAZ:

31. Akelamendi Taberna
32. Hagin Erakunde Feminista

### \*ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:

33. Haizea Kultur Elkarte
34. Lurraska

35. Mungia Altzari Muntaketak
36. Sahats Fundazioa



### BIDEAN

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.



### GUK ZERBITZUA EUSKARAZ

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



### GUK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.

## Barañáingo 36 entitatek eskuratu dute Bai euskarari Ziurtagiria "Bide luzean, urratsa laboru"

Halaxe dio euskal esaera zaharrak, herri jakintzak. Lasterka eginiko lana, alferrikakoa izaten dela, alegia. Eta ezin uka orain 9 urte geure buruari ezarri genion lana luzea dela. Ezin uka Barañáin euskararen erabilera handitzeko bidea ez dela laboru eta aldaparikgabea. Hala ere, orain arte egin ditugun urrats labor horiek urrunera ekarri gaituzte.

Izan ere, jadanik 4 dira zerbitzua euskaraz emateaz gain, euskara lan hizkuntza duten herriko entitateak, iaz baino 3 gehiago. Beste bik zerbitzua euskaraz ematen dute eta beste 30 ditugu horretarako bidean. Guztira, Barañáingo 36 entitatek jaso baitzuten Bai Euskarari Ziurtagiria 2011ko urtarrilaren 19ko ekitaldian.

"Euskarak elkartzen gaitu" izan zen 2002an proiektu hau abian jartzean egin genuen kanpaina erabili genuen eslogana. Eta ziurtagiria emateko ekitaldian agerian gelditu zen, beste behin ere, hori hala dela, Barañáingo Udalean dauden talde politiko guzti-guztien ordezkariak hartu baitzuten parte, alkate jaunarekin eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariarekin batean. Euskararen erabilerearen aldeko elkartzeko pozgarria, benetan.

Euskara herritarren arteko lokarri izate horrek garbi erakusten du etorkizuna euskaraz datorrela. Jose Antonio Mendive alkateak adierazi zigunez, 5.000 gara Barañáingo bizilagun euskaldunak, herritarren %23. Gero eta gehiago gara, beraz, nafar guztion hizkuntza dakigunak, bizitzaren alor guztietan euskaraz egiten dugunak, eta, oztupoak oztupo, euskaraz bizitzen saiatzen garenak.

Horrela egiten badugu, Barañáin euskararen erabilera handitzeko bidean urrats luzeagoak eginen ditugu eta aldapak ere samurragoak gertatuko zaizkigu. Barañáingo Bai Euskarari proiektua, azken batean, euskara Barañáingo bazter guztietara hedatzeko tresna besterik ez da, hala nahi dugun herritarrek euskaraz bizi gaitezen.

## 36 entidades de Barañáin han obtenido el Certificado Bai Euskarari

### "Vísteme despacio que tengo prisa"

Es lo que reza el refranero castellano, así como en el dicho italiano "Chi va piano, va sano e va lontano"... al fin y al cabo sabiduría popular para decirnos que las cosas mejor hechas son las que no se hacen deprisa sino aquellas que son fruto del cuidado y el esmero. Cómo negar que el camino emprendido hace 9 años no es largo. Cómo negar que esa senda para fortalecer el uso del euskera en Barañáin no sea corta y sin cuerdas. A pesar de todo, con los pequeños pasos que hemos dado hasta ahora hemos avanzado, y no poco.

Podemos observar más arriba la relación de las entidades que obtuvieron el Certificado Bai Euskarari en el acto celebrado el 19 de enero de 2011, donde podemos ver que hay 3 entidades nuevas y otras 3 que han subido de nivel.

"El euskera nos une", éste fue el slogan utilizado en el 2002 cuando se puso en marcha este proyecto. Y en el acto de entrega de Certificados fue evidente, una vez más, que eso es así, ya que participaron los representantes de todos los partidos políticos del Ayuntamiento de Barañáin, junto con el Alcalde y el Director de la Asociación Certificados Bai Euskarari. Encuentro gratificante, en verdad, a favor del uso del euskera.

Que el euskera sea vínculo entre la ciudadanía es una muestra de que el futuro habla euskera. El propio alcalde, José Antonio Mendive, aportó el dato de que en Barañáin somos unos 5.000 hablantes, el 23% de la población. Somos cada vez más los que conocemos la lengua de todos los navarros y navarras, los que utilizamos el euskera en todos los ámbitos de la vida, los que, a pesar de las dificultades, intentamos vivir en euskera.

Si seguimos así, podremos dar pasos que nos lleven más lejos en esta senda, y las cuerdas nos resultarán menos fatigosas. El proyecto Bai Euskarari de Barañáin, al fin y al cabo, no es más que un instrumento para que el euskera llegue a todos los rincones del municipio y la ciudadanía que así lo desee pueda vivir en euskera.

**"... El euskera necesita el cariño y el afecto de todos porque es de todos..."**

**PEDRO MIGUEL ETXENIKE**

Científico nacido en Isaba, Navarra.

**Premio Príncipe de Asturias de Investigación Científica y Técnica.**



**Barañaingo Udalaren eta Sahats Fundazioaren arteko 2010eko Elkarlan Hitzarmenaren sinatze ekitaldia** (Jose Antonio Mendive, alkatea; 2007tik 2011ko maiatzar bitarteko legegintzaldia).



**Firma del Convenio de Colaboración de 2010, entre la Fundación Sahats Fundazioa y el Ayuntamiento de Barañáin** (Jose Antonio Mendive, Alcalde; Legislatura 2007-Mayo 2011).

## “Ustez egin ezin zena, bultza ta bultza egin da dena”

Beraz, eta aurretik esandako guztiari eutsiz, *Bai Euskarari* egitasmoaren bidean urratsak egiten segitzeko beharrezkoa da udalaren parte-hartzea, udalaren laguntza. Eta ezinbestekoa herritarren nahia eta bultzada: ez dakitenek ikastea, aitzakia merkeak alde batera utzirik; zerbait badakitenek gehiago ikastea, euskara maila hobetzea eta euskara nonahi eta zernahitarako erabiltzeko trebatzea; badakigunok elkarri euskaraz egitea, euskaraz bizitzeko ditugun aukerak baliatzea; euskararen aldeko urratsak saritzea; gure inguruko erdaldun elebakarrak euskara ikastera bultzatzea eta euskarazko kultur produkzioa babestea.

*“Hay dos maneras de difundir la luz... ser la lámpara que la emite, o el espejo que la refleja”*

**LIN YUTANG**  
*Escritor y filólogo chino*

*“En la actualidad, la protección del euskera es tanto un deber cultural de los poderes públicos hacia esta lengua autóctona y minoritaria, como un deber constitucional (art. 3.3 de la Constitución) y legal. (...) En el caso del euskera, ha de tenerse en cuenta, además, su valor intrínseco como lengua. Es una de las tres únicas lenguas preindoeuropeas vivas en Europa (...), por lo que su valor no se limita solo a Navarra, al País Vasco o a España, sino que alcanza incluso el interés cultural europeo (...)”*

**FCO. JAVIER ENÉRIZ**  
 Nafarroako Arartekoa /  
 Defensor del Pueblo de Navarra

*“Franco hil osteko demokrazia-aldian, 2009ko abenduaren hogeita hiru arte, askotan isilpean eta etenik gabe, 500 Agindu, Errege Dekretu eta abar jarri dira indarrean Espainian jardun-eremu desberdinetan, gaztelaniaren presentzia ez ezik, haren erabilera ere ziurtatzeko, behartzeko.”*

**ERRAMUN OSA**  
 Euskaltzaindiko idazkariordea /  
 Vicesecretario de la Real Academia de la Lengua Vasca

Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude, edota euskalduntze prozesuan aurreratu; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.



*Los trabajadores y las trabajadoras bilingües, y aquellos que están avanzados en el proceso de euskaldunización, están preparados para atender en euskera a la ciudadanía que así lo demande.*



## Barañaingo 36 entitatek eskuratu dute Bai euskarari Ziurtagiria

Ttirriki-ttarraka, poliki-poliki, baina etenik gabe. Halaxe ari gara euskara zabaltzen, biziberritzen eta bizkortzen. Eta ez dira lan horretan motelak 2010eko urtarrilaren 22an Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duten 36 entitateak. 2006an 14 entitatek lortu zuten aipatu ziurtagiria; 2007an, 20k; 2008an, 33k; eta azken banaketan 36k erdietsi zuten ziurtagiri hori. Bejondeiela, guztie!

Eskuartean duzun 8. Berripapera hau, kolorerik gabeko soinekoa jantzirik dator, aurreko 7 aleak ez bezala, baliabide eskasiak hala agindurik. Soineko xumeak, ordea, gorputz mardula estaltzen du, gorputz bete eta osasuntsua, lanari beldurrik ez diona.

2009an aseguru-etxeei beren jarduera euskalduntzen laguntzeko kanpaina egin da. Kanpaina horren bidez, Bai Euskarari proiektuan parte hartzen ari diren hainbat entitateek kontratuak eta jakinarazpenak euskaraz jasotzeko eskaria egin diete aseguru-etxeei. Bestalde, finantza entitateen alorra lantzeko aurrelanak egiten hasiak gara.

Prozesuan parte hartzen ari direnei harturiko konpromisoak garatzeko eta betetzeko laguntza eman zaie, orain arte bezala. Horretarako, euskara ikasteko laguntzak eman zaizkie, dohainikako euskaratze zerbitzua izan dute entitate hauek, karrikako kartel nagusia aldatzeko laguntzak izan dituzte eskura, hizkuntza aholkularitza eman zaie, Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateen urteroko ebaluazioa egin da...

Administrazioaren alorrean, zoritxarrez, aurrerapausorik ez da egin, nahiz eta Bai Euskarari egitasmokoak alor horretan ere gogotsu saiatu, euskaraz hartuak izateko eskubidea bermatua izan dezaten herritarrek.

Aipa dezagun, azkenik, 2010eko uztailen Barañaingo Udalaren hizkuntza politikaren II. neurketa egitekoak gara, eta azterketa horrek agerian utziko duela alor horretan atzerakadarak izan den edo ez.

Hauek dira, labur-labur azalduz, euskararen erabilera handitzeko proiektu honen azkenaldiko argiak eta ilunak. Guk gure aldetik, orain arte bezalaxe segituko dugu, apal-apal, ttirriki-ttarraka lanean, ahaleginak egiten euskara Barañaingo txoko guztietara irits dadin.

## ZIURTAGIRIA JASO DUTEN ENTITATEAK:

### ENTIDADES QUE HAN OBTENIDO EL CERTIFICADO:

**\*BIDEAN:** 1. Andromeda Belardenda/Herbolario Andromeda 2. Asesores Reunidos de Navarra Correduria de Seguros S.L. 3. Barañain Auditorioa Fundazioa/Fundación Auditorio Barañain 4. Barañaingo Ezpelur Dultzaineroak 5. Barañaingo Emakumeen Taldea/Vocalía de la Mujer 6. Barañaingo Gizarte Eskola/Escuela Social de Barañain 7. Barañaingo Trikitilari Eskola 8. Coral Barañain Abesbatza 9. Eroski Bidaiak/Viajes Eroski S. Coop 10. Gogorza Anaiak harategia/Carnicería Gogorza Hermanos 11. Gortinak Garmi/Cortinas Garmi 12. Haizea Kultur Elkarte 13. Harizti Barañaingo Dantza Taldea 14. Iratxo Taberna 15. Jade Naturset 16. Kaioa Taberna 17. Kukuma Gozo-denda/Tienda de chucherías Kukuma 18. Lur Gorri Taberna Jatetxea 19. Mugarri Guraso Elkarte 20. Muruzabal Bizikletak/Bicicletas Muruzabal 21. Sada Hartz Klinika/Clinica dental Sada 22. Sidrería Auzmendi Sagardotegia 23. Sociedad de Prevención Fremap S.L.U. 24. Studio Liburudenda/Librería 25. Tecniauto Auto Tailerra/Taller de coches Tecniauto 26. Euskadiko Kutxa/Caja Laboral 27. Centro veterinario ABODI 28. Cubillas Botika 29. Elektronika Barañain 30. Txaranga Iganda.

**\*ZERBITZUA EUSKARAZ:** 1. Akelamendi Taberna 2. Hagin Erakunde Feminista 3. Lurraska Barañaingo Gizarte mugimenduaren proiektu komunikatiboa 4. Mungia Altzari Muntaketak 5. Barañaingo Gazte Asanblada.

**\*ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ:** 1. Sahats Fundazioa.

## 36 entidades de Barañain han obtenido el Certificado Bai Euskarari

Poco a poco, sin prisa pero sin pausa. Es así como difundimos, vivificamos y fortalecemos el euskera. ¡Y qué decir del trabajo realizado por las 36 entidades que el 22 de enero de 2010 adquirieron Certificado Bai Euskarari! El año 2006 fueron 14; 20 el 2007; 33 entidades el 2008; y en la última entrega han sido 36. ¡Enhorabuena a todas ellas!

Esta edición 8 de Berripapera que lees, al contrario de las 7 anteriores, está ausente de color en su vestimenta obligados por la falta de recursos. Sin embargo, la vestimenta sencilla, cubre un cuerpo robusto, vigoroso y sano, que no teme al trabajo.

En 2009 se desarrolló una campaña para ayudar a las aseguradoras a euskaldunizar su actividad, y entidades participantes en el proyecto solicitaron contratos y notificaciones en euskera. Por otro lado, se han dado pasos para trabajar en el ámbito de las entidades financieras.

A los integrantes del proyecto se les ha ayudado, como hasta ahora, a desarrollar y alcanzar los compromisos que adquirieron. Así, han tenido ayudas para el aprendizaje de euskera, un servicio de traducción gratuito, ayudas para modificar el rótulo principal de la calle, han tenido asesoramiento lingüístico, se ha realizado la evaluación anual a aquellas entidades que poseen el Certificado Bai Euskarari...

En el ámbito de la Administración, lamentablemente, no se ha avanzado, si bien se trabajó con ahínco desde el Bai euskarari en dicho ámbito, para garantizar el derecho de la ciudadanía a ser atendida en euskera.

Señalar también, que en julio de 2010 se realizará la II medición de la política lingüística del Ayuntamiento de Barañain, donde se reflejará si se ha avanzado o no en este ámbito.

Éstas son, últimamente, y presentadas de forma escueta, las luces y sombras de este proyecto para incrementar el uso del euskera. Nosotros, por nuestra parte, continuaremos como hasta ahora, humildemente, trabajando, poco a poco, esforzándonos para que el euskera pueda llegar a todos los rincones de Barañain.



### BIDEAN

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para la normalización del euskera.

### GUK ZERBITZUA EUSKARAZ

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.

### GUK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.



**Barañaingo Udalaren eta Sahats Elkartearen arteko 2009ko Elkarran Hitzarmenaren sinaketa ekitaldia** (Jose Antonio Mendive, alkatea; 2007tik 2011ko maiatza bitarteko legegintzaldia).



**Firma del Convenio de Colaboración de 2009, entre la Asociación Sahats Elkartea y el Ayuntamiento de Barañáin** (Jose Antonio Mendive, Alcalde; Legislatura 2007-Mayo 2011).

## Amuarrainak begi bi, sei ezkailuk hamabi.

Txikiek elkar harturik handiak baino gehiago ikusten ote dute? Ezkailu txiki asko amuarrain handia baino ahaltsuagoak ote dira? Hala uste zuten gure aurrekoek eta uste berekoak gara gu ere, ezkailu txikiok. Euskaraz bizi nahi dugun herritar xumeok asko egin dezakegu egunerokoan, inoren zain egon gabe. Izan gaitezen, bada, elkarri lagunduz errekan gora egiten duten ezkailu txiki bixi-bixiak.

Hona hemen horretarako zenbait gomendio: euskaldunari beti euskaraz egin; ezezagunari lehen hitza euskaraz, gutxien uste dena izaten baita euskalduna; bizitzaren alor guztietan euskaraz egin ahal izateko geure burua trebatu; gure inguruko erdaldunak euskara ikastera animatu eta horretan ari denari ahal dugun guztia lagundu; seme-alabak D ereduan eskolatu eta gure ingurukoak ere horretara bultzatu; euskarazko kultur produktuak kontsumitu, euskarazko zerbitzua ematen dutenak saritu, euskaldunoi zor zaigun errespetua erakusten duten denda, taberna eta bestelako zerbitzuak lehenetsi; lan hitzarmenetan euskara ikasteko erraztasunak sarrarazi, enpresak ikasteko denbora ematea eta matrikula ordaintzea, esaterako; administrazioekiko harremanetan euskaraz aritu, administrazioek euskaldunak euskaraz hartzeko eta euskaraz erantzuteko eskatu, administrazioak euskarazko zerbitzurik ematen ez badigu, salatu (**Behatokia 902 194 332**); jarrera egokiak txalotu eta ezagutarazi; euskararen aldeko lanean ari diren herri mugimenduak babestu eta lagundu, diruz, borondatezko lanaren bidez, antolatzen dituzten jardueretan parte hartuz, inguruko artean mugimendu horien aldeko jarrera zabalduz; euskara teknologia berrien munduan ere erabili eta zabaldu...

Beraz, ezkailuok, amuarrain handien artean ibiltzera ohituriko ezkailu zailduok, nahi izanez gero, badugu zer egina, gaur bertan hasirik, egunero-egunero. Igerialdi on!

Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude, edota euskalduntze prozesuan aurreratuta; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.



Los trabajadores y las trabajadoras bilingües, y aquellos que están avanzados en el proceso de euskaldunización, están preparados para atender en euskera a la ciudadanía que así lo demande.

**“Es más fácil desintegrar un átomo que un prejuicio.”**  
**ALBERT EINSTEIN**



Ayuntamiento de Barañáin / Barañaingo Udala  
 Área de Euskera / Euskara Arloa  
 Plaza Consistorial s/n, 2º / Udaletzeko Plaza z/g, 2.a  
 31010 BARAÑAIN  
 Tel. 948 286 309  
 @: euskaraz@baranain.com  
 web: www.baranain.com



Oficina BAI EUSKARARI Bulegoa  
 IKA Sahats Euskaltegia  
 Avda. del Valle 2, bajo  
 Haraneko etorbidea 2, behea  
 31010 BARAÑAIN  
 Tel. 948 182 775  
 @: baieuskara@terra.es

# Berripapera



## BIDEAN

Euskararen normalizaziorako gutxieneko neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta entitateei zuzendua. Dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para la normalización del euskera.



## ZERBITZUA EUSKARARI

Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresei, saltokiei eta entitateei zuzendua. Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



## ZERBITZUA ETA LANA EUSKARARI

Zerbitzua euskaraz eskaini eta euskaraz lan egiten duten enpresei, saltokiei eta entitateei zuzendua. Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.

## Barañaingo 33 entitatek eskuratu dute Bai euskarari Ziurtagiria

## 33 entidades de Barañáin han obtenido el Certificado Bai Euskarari

### NOLA EREIN, HALA BILDU

**E**z da ziurtagiri uzta txarra izan 2008koa. Ereiten ere zeharo oker ez gabiltzala erakusten du horrek, hasierako esaera zaharrak gezurrik ez badio, behintzat. Urteik urtera gehiago dira konpromisoak hartu eta Bai Euskarari Ziurtagiria bereganatzen duten herriko enpresa, saltoki, taberna eta era guztietako elkarte zein taldeak. 2006an 14 entitatek lortu zuten aipatu ziurtagiria. 2007an 20k. Eta 2008ko urriaren 24an, 33 entitatek egin zuten urrats hori. Bejondeiela!

Gero eta ziurtagiri gehiago, eta gero eta maila handiagoak, hiru mailatako ziurtagiriak ematen baititu Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak: *bidean*, *zerbitzua euskaraz* eta *zerbitzua eta lana euskaraz*. Urtero-urtero ziurtagiria duen entitate bakoitzak harturiko konpromisoak bete diren edo ez aztertzen da, entitate horretan euskararen erabilera zenbaterainokoa den ikusi eta hurrengo urterako konpromisoak erabaki. Harturiko konpromisoak betetzen ez dituenari ez zaio ziurtagiria berritzen, eta euskararen egoera hobetu duen entitateari bai.

Aipa dezagun, azkenik, 2009an ere Barañaingo Bai Euskarari egitasmoan parte hartzen ari diren entitate guztiek Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko aukera izanzen dutela, eta lehendik badutenek ziurtagiria berritzekoa. Gu, gure aldetik, 2008ko uzta bikaina hobetzen gogotik saiatuko gara.

### TAL SIEMBRA, TAL SIEGA

**L**a cosecha de Certificados de 2008 ha sido buena. Si el proverbio inicial no miente, eso significa que, al menos, no andaremos muy equivocados en la siembra. De año en año aumenta el número de empresas, comercios, bares y todo tipo de asociaciones y grupos que adquieren compromisos y obtienen el Certificado Bai euskarari. El año 2006 fueron 14 las entidades que lo lograron; 20 el año 2007. Y, el 24 de octubre de 2008, fueron 33 los que dieron ese paso. ¡Enhorabuena!

Cada vez son más los Certificados y cada vez de mayor nivel, ya que la Asociación de Certificados Bai euskarari concede certificados de tres niveles: *bidean*, *zerbitzua euskaraz* y *zerbitzua eta lana euskaraz*. Anualmente se estudia si los compromisos adquiridos por cada entidad se cumplen o no; se analiza el nivel de uso del euskera, y se adquieren -voluntariamente- los compromisos para el siguiente año. A aquellos que no han cumplido los compromisos no se les renueva el Certificado, y sí, a las entidades que han mejorado su uso del euskera.

Finalmente, señalar que todas las entidades que participan en el proyecto Bai euskarari de Barañáin tienen la posibilidad de adquirir el Certificado durante este año 2009 y, aquellos que ya lo obtuvieron, de renovarlo.



**Barañaingo Udalaren eta Sahats Elkartaren arteko 2008ko Elkarlan Hitzarmenaren sinaketa ekitaldia** (Floren Luqui, alkatea; 2007tik 2011ko maiatza bitarteko legegintzaldia).

2008ko apirilean gobernu aldaketa izan zen eta, gaur egun, Jose Antonio Mendive alkatearekin, Udalak Bai Euskarari egitasmoa babesten jarraitzen du. Aurki sinatuko da 2009ko Akordioa.

**Firma del Convenio de Colaboración de 2008, entre la Asociación Sahats Elkartea y el Ayuntamiento de Barañáin** (Floren Luqui, Alcalde; Legislatura 2007-Mayo 2011).

En abril de 2008 hubo cambio de gobierno y, hoy día, el Ayuntamiento, con José Antonio Mendive como alcalde, sigue patrocinando el Proyecto Bai Euskarari. Próximamente se firmará el Acuerdo de 2009.

## EUSKARAREN SUA HAUSPOAZ AKUILATZEN

**H**orretantxe ari gara Bai Euskarari egitasmoa Barañainen abiatu genuenetik. Euskararen sua bizkortu eta zabaldu dadin lanean, euskara bizitzaren esparru gehiagotara hedatu nahian, euskararen sua bizkortu nahian, euskararen beroak har gaitzan, euskararen erabilera handitu nahian, azken batean. Heldu den hilean, otsailan, alegia, 8 urte izanen dira Barañaingo Udalak IKAKo Sahats euskaltegiak egin zion proposamenari baietza eman ziola. Eta azken 8 urte hauetan indartu egin zaigu hasierako su piztu berri txikia, eta, jada, 7 jarduera alor hartu ditu bere baitan Barañaingo Bai Euskarari proiektuak: merkataritza, ostalaritza, hezkuntza, zerbitzu orokorrak, Udala administrazioa, herriko alderdi politikoak eta talde soziokulturalak.

Arestian aipaturiko esparru horietako 85 entitate ari dire gure hizkuntzaren erabilera areagotzeko urratsak egiten, batzuk beste batzuk baino lasterrago, jakina, baina, guztiak ere bide egokian, euskara erabilera indartzeko bidean. Pauso horiek egiteko laguntza ere badute, noski, eta ondoko zenbakiak egiten ari den lanaren tamaina erakusten dutelakoa gaude: 500 baino gehiago dira bete diren euskararen erabilerearen aldeko neurriak, 300 baino gehiago proiektuko teknikariak entitateekin eginiko banan-banako bilerak, euskara ikasteko laguntzetan 4.804 euro banatu dira, 235etik gora dohainik eginiko euskaratze lanak, 10 karrikako kartel nagusia euskaratzeko laguntza jaso duten entitateak, 33 Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dutenak...

2008an herriko entitate soziokulturalen alorra jorratzen segitu dugu, prozesuan parte hartzen ari diren 21 talde eta elkarte horiek konpromisoak hartu baitituzte eta horietako 10ek, gainera, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dute. Jakin, bagenekien, alor horretan euskaraz gehiago egiten zela beste batzuetan baino. Hala ere, poztekoa da alor honek orain 8 urteko su txiki hura nola indartu duen ikustea.

## EL FUELLE QUE AVIVA EL CALOR DEL EUSKERA

**E**stamos en ello desde que iniciamos el proyecto del Bai Euskarari en Barañáin. Trabajando para que el fuego de nuestra casa brille con luz propia, un fuego sereno con el que hagamos llegar el calor del euskera a más ámbitos de nuestro municipio y alumbrar con él el uso del euskera. Al fin y al cabo, para que más personas se acerquen y vean que arde la vida con tantas ganas, que no puedan evitar encenderse, para hacer así, fuegos de todos los colores. El mes que viene, serán ya 8 años desde que el Ayuntamiento aceptó la propuesta que le hizo el euskaltegi Sahats de IKA. Esa pequeña brasa ha servido para dar calor, y color, al euskera en los 7 ámbitos del proyecto Bai euskarari: Comercio, Hostelería, Educación, Servicios generales, Administración local, Partidos políticos y Entidades socioculturales.

85 entidades de dichos ámbitos son los que están manteniendo encendida la llama para aumentar el uso del euskera en Barañáin; unos con fuegos grandes, otros con fuegos chicos, pero todos ellos, avivando el calor del euskera. Para ello, evidentemente, tienen ayuda, pero los siguientes datos reflejan el volumen del trabajo que se desarrolla: Más de 500 tareas cumplidas para aumentar el uso del euskera; más de 300 las reuniones mantenidas por la Técnica del proyecto con las entidades -de una en una-; se han distribuido 4.804 euros para el aprendizaje del euskera; más de 235 trabajos de traducción realizados de forma gratuita; 10 las entidades que han recibido ayuda para cambiar el paisaje lingüístico; 33 las que han recibido el Certificado Bai Euskarari...

Durante el 2008 hemos continuado trabajando el ámbito de las entidades socioculturales, ya que 21 de las asociaciones y grupos que participan en el proyecto han adquirido compromisos; y, además, 10 de éstos tienen el Certificado. Sabíamos de antemano que en este sector el uso del euskera era mayor que en otros; sin embargo, es gratificante ver que ese calor del euskera se ha fortalecido en estos 8 años.

“Hegoak ebaki banizkio  
nerea izango zen,  
ez zuen alde egingo.  
Baina, horrela  
ez zen gehiago txoria izango  
eta nik...  
txoria nuen maite...”

Mikel Laboa

### TRADUCCIÓN

Si le hubiera cortado las alas  
habría sido mío,  
no habría escapado.  
Pero así,  
habría dejado de ser pájaro.  
Y yo...  
yo lo que amaba era un pájaro

“Elebidunen igoerarik nabarmenena eremu mistoan gertatu da. (...) 16 urtetik gorako 12.400 elebidun baitzeuden 1991n eta 22.800 egun. Horrek esan nahi du hamabost urtetan %45,9ko igoera izan dutela elebidunek eremu mistoan” (IV. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA - Nafarroa)

“El mayor aumento de bilingües mayores de 16 años ha sido en la zona mixta. (...) En 1991 había 12.400 bilingües y, hoy día, hay 22.800. Eso quiere decir que, en quince años, el grupo de hablantes bilingües ha tenido una subida del 45,9% en la zona mixta”. (IV ESTUDIO SOCIOLINGÜÍSTICO - Navarra)

# Berripapera

...

Administrazioaren eremuan, berriz, 2007an Udalak erabaki zuenari jarraikiz, Euskararen ordenantzaren 15. artikuluan aipatzen den Batzorde Teknikoa osatu zen, 2008an. Alkatea, Udalaren Euskara sailaren arduradun politikoa, Udal Euskara teknikaria, Enpresa Batzordeko kide bat, Bai Euskarari proiektuko teknikaria, Bai Euskarari proiektuko kudeatzailea eta Nafarroako Gobernuaren Euskarabideko teknikari bat dira Batzorde horretako partaideak. Aipatu Batzorde Teknikoa 7 aldiz elkartu da orain arte. Batzordeak, gerora Udalak onartu zuen, Euskararen Protokoloa prestatu zuen, batetik, eta bestetik, zailtasunak zailtasun 2009ko plantilla organikoaren gaineko proposamen teknikoa osatzea du jomuga.

Aipa dezagun, azkenik, aurten finantza entitateen esparrua jorraztekoak garela eta Udal administrazioarenean ere urratsak egiten segitu nahi dugula, ohiko lanez gain. Bestalde, herriko entitate gehiago Bai Euskarari proiektura bil daitezen saiatuko gara. Hartara, guztion artean osaturiko hauspoa handiagoa izanen da, euskararen suak Barañaingo bazter guztiak berotu ditzan.


...

Por otro lado, en el sector de la Administración y siguiendo lo acordado en el 2007, en el año 2008 se ha constituido la Comisión técnica recogida en el artículo 15 de la Ordenanza del euskera. Está integrada por las siguientes personas: el alcalde, la responsable política del área de euskera, la técnica municipal de euskera, un miembro del Comité de trabajadores/as, un técnico del Gobierno de Navarra (Euskarabidea/Instituto Navarro del Vascuence) y, el gestor y la técnica del proyecto. Dicha Comisión se ha reunido, hasta la fecha, 7 veces. Presentó en su día, el texto que aprobó la Junta de Gobierno Local para el Protocolo Lingüístico en el Ayuntamiento, y, está trabajando la propuesta técnica para la plantilla orgánica del 2009, tras la entrega del primer borrador que ha elaborado.

Señalar, finalmente, que este año tenemos la previsión de trabajar el sector de las entidades financieras; que nos gustaría seguir dando pasos en el sector de la Administración, entre otras tareas habituales. También intentaremos que más entidades del municipio se animen a participar en el proyecto Bai Euskarari. Así, el fuelle construido entre todos será más grande, y el calor del euskera podrá abrigar todos los rincones de Barañain.

## nirekin euskaraz

EUSKARAZ EGIN! ZEUREAZ EGIN!



**Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude, edota euskalduntze prozesuan aurreratuta; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.**

**Los trabajadores y las trabajadoras bilingües, y aquellos que están avanzados en el proceso de euskaldunización, están preparados para atender en euskera a la ciudadanía que así lo demande.**

“... Si hablar la misma lengua facilita el entendimiento, ¿por qué cuando se encuentran un inglés y un catalán es el catalán el que ha de hablar inglés y no el inglés el que ha de hablar catalán? Lo equitativo sería que el inglés hablara catalán, y el catalán, inglés...”

*La Dignidad e Igualdad de las Lenguas (Pág. 256).* Juan Carlos Moreno Cabrera, Catedrático de Lingüística de la Universidad Autónoma de Madrid

Gorka Erostarbe (kazetaria): - Hasi aurretik. Barkatu nire ingeles eskasarengatik...

Robert Wyatt (musikaria): - Lasai, nire euskara baino hobea da.

### ZIURTAGIRIA JASO DUTEN ENTITATEAK: ENTIDADES QUE HAN OBTENIDO EL CERTIFICADO:

**BIDEAN:** 1. Andromeda Belardenda / Herbolario Andromeda 2. Asesores Reunidos de Navarra Correduría de Seguros S.L. 3. Barañain Auditorioa Fundazioa / Fundación Auditorio Barañain 4. Barañaingo Ezpelur Dultzaineroak 5. Barañaingo Emakumeen Taldea / Vocalía de la Mujer 6. Barañaingo Gizarte Eskola / Escuela Social de Barañain 7. Barañaingo Trikitilari Eskola 8. Coral Barañain Abesbatza 9. Deportes Barañain Sport 10. Eroski Bidaiak / Viajes Eroski S. Coop 11. Etxarte Gozotegia / Pastelería Etxarte 12. Gogorza Anaiak harategia / Carnicería Gogorza Hermanos 13. Gortinak Garmi / Cortinas Garmi 14. Haizea Kultur Elkartea 15. Harizti Barañaingo Dantza 16. Iratxo Taberna 17. Jade Naturset 18. Kaioa Taberna 19. Kukuma Gozo Denda / Tienda de chucherías Kukuma 20. Lur Gorri Taberna Jatetxea 21. Mugarri Guraso Elkartea 22. Muruzabal Bizikletak / Bicicletas Muruzabal 23. Sada Hertz Klinika / Clínica dental Sada 24. Sidrería Auzmendi Sagardotegia 25. Sociedad de Prevención Fremap S.L.U. 26. Studio Liburudenda / Librería Studio 27. Tecniauto Autotailerra / Taller de coches Tecniauto **ZERBITZUA EUSKARAZ:** 1. Akelamendi Taberna 2. Hagin Erakunde Feminista 3. Lurraska Barañaingo Gizarte mugimenduaren proiektu komunikatiboa 4. Mungia Altzari Muntaketak 5. Barañaingo Gazte Asanblada **ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ:** 1. Sahats Fundazioa (IKA).

Gaur egun Bai Euskarari Barañaingo proiektuan parte hartzen ari direnak sektoreka eta alfabetikoki  
Participantes por sectores, y en orden alfabético, en el proyecto Bai Euskarari de Barañaín a día de hoy

## HEZKUNTZA / EDUCACIÓN

- 1 ALAITZ BHI INSTITUTO.
- 2 ALAITZ IKASTETXE PUBLIKOA / COLEGIO PÚBLICO ALAIZ.
- 3 ALAITZ IKASTETXEKO JANTOKIKO LANGILEAK TRABAJADORAS DEL COMEDOR DEL COLEGIO ALAIZ.
- 4 BARAÑAINGO UDALAREN HAUR ESKOLAKO EUSKARAZKO MODULUA MÓDULO DE EUSKERA DE LA ESCUELA INFANTIL DEL AYUNTAMIENTO DE BARAÑAÍN.
- 5 EULTZA IKASTETXEA-A EREDUA / MODELO A DEL COLEGIO EULZA.
- 6 EULTZA IKASTETXEKO JANTOKIKO LANGILEAK TRABAJADORAS DEL COMEDOR DEL COLEGIO EULZA.
- 7 IES BARAÑAÍN-A EREDUA MODELO A DEL INSTITUTO DE BARAÑAÍN.
- 8 SAHATS IKASTETXEKO EUSKARA DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE EUSKERA DEL COLEGIO SAHATS.

## MERKATARITZA / COMERCIO

- 9 ALAI SPORT KIROL-DENDA TIENDA DE DEPORTES ALAI SPORT.
- 10 ANDROMEDA BELARDENDA HERBOLARIO ANDROMEDA.

- 16 CUBILLAS BOTIKA FARMACIA CUBILLAS.
- 17 ETXARTE GOZOTEGIA / PASTELERÍA ETXARTE.
- 18 GOGORZA ANAIK HARATEGIA / CARNICERÍA GOGORZA HERMANOS.
- 19 GORTINAK GARMÍ CORTINAS GARMÍ.
- 20 JADE NATURSET.
- 21 KUKUMA GOZO DENDA TIENDA DE CHUCHERÍAS KUKUMA.
- 22 LIBRERÍA STUDIO LIBURUDENDA.
- 23 MURUZABAL TXIRRINDULA-DENDA MURUZABAL BICIS.
- 24 NUNCHI BIENZOBAS JOSKINTZA / COSTURA NUNCHI BIENZOBAS.
- 25 OIHALAK.
- 26 ONDO IBILI ZAPATA KONPONTZAILA REPARACIÓN DE ZAPATOS ONDO IBILI.
- 27 ORTZADAR MARGOAK / PINTURAS ORTZADAR.
- 28 ROCK MODA VIVA S.L.
- 29 ROSA M<sup>e</sup> ECHANIZ ROS OIN ZAINKETA / ARREGLO DE PIES.

## OSTALARITZA / HOSTELERÍA

- 30 AKELAMENDI TABERNA
- 31 IPARRALDE TABERNA / BAR IPARRALDE.
- 32 IRATXO TABERNA / BAR IRATXO.

- 37 SAI TABERNA / BAR SAI.
- 38 SIBEMOL TABERNA / BAR SIBEMOL.
- 39 SIDRERÍA AUZMENDI SAGARDOTEGIA.

## ZERBITZU OROKORRAK SERVICIOS GENERALES

- 40 ABOBI ALBAITARIA / CENTRO VETERINARIO ABOBI.
- 41 ARRITXU ILEAPAINDEGIA / PELUQUERÍA ARRITXU.
- 42 ASESORES REUNIDOS DE NAVARRA S.L. / AHOLKULARITZA.
- 43 CAJA LABORAL / EUSKADIKO KUTXA.
- 44 CLINICA DENTAL SADA / SADA HORTZ KLINIKA.
- 45 ELECTRÓNICA BARAÑAÍN S.L.
- 46 EROSKI BIDAIK S. KOOP / VIAJES EROSKI S. KOOP.
- 47 LA CARTELERÍA IMPRESIÓN DIGITAL.
- 48 MUNGIA ALTZARI MUNTAKETA.
- 49 SERVICIOS INMOBILIARIOS EULZA.
- 50 SOCIEDAD DE PREVENCIÓN FREMAP S.L.U.
- 51 TECNIAUTO AUTO-TALLERRA / TALLER DE COCHES TECNIAUTO.

## BESTELAKOAK / OTROS

- 52 BARAGAZTE.
- 53 BARAÑAÍN AUDITORIOA / AUDITORIO BARAÑAÍN.
- 54 LAGUNAK ELKARTEA / SOCIEDAD LAGUNAK.
- 55 VIVIR EN BARAÑAÍN.

## ALDERDI POLITIKOAK PARTIDOS POLÍTICOS

- 56 ARALAR.
- 57 BARAÑAINGO EZKER BATUA / IZQUIERDA UNIDA DE BARAÑAÍN.
- 58 BARAÑAINGO PSN-PSOE / PARTIDO SOCIALISTA DE BARAÑAÍN (PSN-PSOE).
- 59 BATZARRE.
- 60 CIB.

- 61 CDN-CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA.
- 62 EUSKO ALKARTASUNA.
- 63 IRRINTZI TALDEA.

## ENTITATE SOZIOKULTURALAK ENTIDADES SOCIOCULTURALES

- 64 ARITZA GURASO ELKARTEA APYMA ARITZA.
- 65 ASOCIACIÓN DE AFICIONADOS A LA TALLA DE MADERA.
- 66 BARAÑAÍN ABESBATZA / CORAL BARAÑAÍN.
- 67 BARAÑAINGO EMAKUMEEN TALDEA / VOCALÍA DE LA MUJER.
- 68 BARAÑAINGO EZPELUR DULTZAINEROAK.
- 69 BARAÑAINGO GAITARIAK / GAITEROS DE BARAÑAÍN.
- 70 BARAÑAINGO GAZTE ASANBLADA.
- 71 BARAÑAINGO GIZARTE ESKOLA / ESCUELA SOCIAL DE BARAÑAÍN.
- 72 BARAÑAINGO GIZARTE FOROA.
- 73 BARAÑAINGO TRIKITILARIAK.
- 74 BARAÑAINGO TXISTULARIAK.
- 75 EHE.
- 76 ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA / COMPARSA DE GIGANTES Y CABEZUDOS.
- 77 HAGIN, BARAÑAINGO TALDE FEMINISTA.
- 78 HAIZEA KULTUR ELKARTEA.
- 79 HARIZTI, BARAÑAINGO DANTZA TALDEA.
- 80 HEGOAK ELKARTEA ASOCIACIÓN HEGOAK.
- 81 HIRUDUNA MUSIKA TALDEA.
- 82 LURRASKA.
- 83 MUGARRI GURASO ELKARTEA / APYMA MUGARRI.
- 84 MUJERES PROGRESISTAS DE BARAÑAÍN.
- 85 TXARANGA IGANDEA.



- 11 ARRAIZA ARRANDEGIA PESCADERÍA ARRAIZA.
- 12 BARAÑAÍN KIROL-DENDA DEPORTES BARAÑAÍN.
- 13 B. ARRESE BOTIKA FARMACIA B. ARRESE.
- 14 BOUTIQUE ROCK.
- 15 "CERCA DE TI" LENTZERIA-DENDA / "CERCA DE TI" LENCERÍA.
- 33 KAIOA TABERNA / BAR KAIOA.
- 34 LOS PORCHES TABERNA / EXPLOTACIONES HOSTELERAS LOS PORCHES, S.L.
- 35 LUR GORRI TABERNA / BAR LUR GORRI.
- 36 PAGOA JATETXEA / BAR-RESTAURANTE PAGOA.

## Elkarlanean aurrera

Proiektu honetan lanean ari garenok garbi dugu euskaldunon esku ere badagoela bizitzaren alor guztietan euskaraz aritze-ko bidean urratsak egitea, egunerokoan kontsumitzaile eta bezero garen aldetik, euskara aintzat hartzen dutenen jarrera eta ahaleginak saritzea, jasotzen ditugun zerbitzuak zer hizkuntzatan ematen dizki-

guten kontuan hartzea eta horren arabera jokatzeko, euskaldunonganako errespetua erakusten dutenak hobestea, azken batean.

Kontsumo arduratsuen aldeko mezuak ugaritzen ari diren garai honetan, behar-beharrezkoa iruditzen baitzaigu euskararen aldeko pausoak egiten ari denari euskaldun eta euskaltzale guztiok gure poza eta babesa adieraztea. Gainerakoan, nekez lortuko dugu euskarak esparru berriak irabaztea, nekez, lan munduan, merkataritzan, ostalaritzan eta beste hainbat zerbitzutan euskarari baliorik ematea.





Ayuntamiento de Barañáin / Barañaingo Udala  
Área de Euskera / Euskara Arloa  
Plaza Consistorial s/n, 2º / Udaletxe Plaza z/g. 2.a  
31010 BARAÑAIN  
Tel. 948 286 309  
@: euskaraz@baranain.com  
web: www.baranain.com



Oficina BAI EUSKARARI Bulegoa  
IKA Sahats Euskaltegia  
Avda. del Valle 2. bajo  
Haraneko etorbidea 2. behe  
31010 BARAÑAIN  
Tel. 948 182 775  
@: baieuska@retea.com

# Berripapera



## Barañaingo 21 elkartek Bai Euskarari Akordioa sinatu eta alor horretako plan estrategikoa prestatu dute

## 21 entidades socioculturales han firmado el Acuerdo Bai Euskarari y elaborado el plan estratégico del sector

**B**ai Euskarari egitasmoak 7. alorra hartu berri du bere baitan: herriko elkarte soziokulturaleena. Izan ere, 2007ko udazkenean proiektu honen berri eman zitzaizen herriko era guztietako elkarteei, eta horietako 21ek Bai Euskarari egitasmoan parte hartzea erabaki zuten. Beraz, gaur egun 85 dira Barañáin euskaren erabilera handitzeko proiektu honetan lanean ari diren entitateak. Gainerako alorretan bezalaxe, herriko 21 elkarte horien ordezkariak beren arloan euskararen erabilera zertan den aztertu dute, euskararen egoera nola hobetu ikusi, eta helburu hori betetzeko neurriak zein izan daitezkeen adostu dute, 2007ko azaroan eta abenduan eginiko bilere-tan.

Hemendik aurrera, talde bakoitzak askatasun osoz erabakiko du zer konpromiso hartu eta zer epetan beteko dituen, euskararen erabilera handitzea helburu izanik. Nafar guztion hizkuntzaren aldeko

ahalegin horretan Barañaingo Bai Euskarari proiektuko teknikariaren laguntza eta aholkularitza izango dute, eta baita euskara ikasteko eta testuak euskaratzeko laguntza ere, besteak beste.

**E**l proyecto Bai Euskarari ha acogido el séptimo sector social: las entidades socioculturales del municipio. En otoño de 2007 se dio a conocer el proyecto a todas las entidades y 21 de éstas han decidido participar en el proyecto Bai Euskarari. Por lo que ya son 85 las entidades de Barañáin que están aportando su granito de arena en esta labor de fomento del uso del euskera. Al igual que en los demás sectores sociales, los representantes de esas 21 entidades socioculturales han realizado un diagnóstico de la situación del euskera en su ámbito, han estudiado cómo mejorar esa situación y han acordado cuáles serían las tareas para llevarlo a cabo, en las reuniones de trabajo celebradas en noviembre y diciembre de 2007.

A partir de ahora, cada entidad decidirá libremente qué compromisos va a adquirir y en qué plazos los va a cumplir, con el objetivo de impulsar el uso del euskera en su entidad.

En este esfuerzo de promoción de la lengua de los navarros y las navarras, tendrán la colaboración y el asesoramiento de la técnica del proyecto Bai Euskarari de Barañáin, así como ayudas para aprender euskera y traducir textos, entre otras.

## Barañaingo Udalaren eta Sahats Elkartaren arteko 2007ko Elkarlan Hitzarmenaren sinaketa ekitaldia

(Josu Senosiáin Ibáñez, alkatea; 2003tik 2007ko maiatza bitarteko legegintzaldia)

Hauteskunde ondoan, gobernu aldaketa izan zen. Gaur egun ere, Udalak Bai Euskarari proiektua babesten jarraitzen du eta 2008ko Hitzarmena aurki sinatuko da.

## Firma del Convenio de Colaboración de 2007, entre la Asociación Sahats Elkartea y el Ayuntamiento de Barañáin

(Josu Senosiáin Ibáñez, Alcalde; Legislatura 2003-mayo 2007)

Tras las elecciones de mayo, hubo cambio de gobierno y, hoy día, el Ayuntamiento sigue patrocinando el proyecto Bai Euskarari. Próximamente se firmará el Acuerdo de 2008.



## ARI GARELA, ARI GARELA... SE HACE CAMINO AL ANDAR

**S**ei urte. Aurtengo azaroan 6 urte beteko dira Bai Euskarari egitasmoa abian jarri genuenetik Barañáin. Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak taxuturiko metodologia gure herrira egokitu, Udalak egitasmoa bere osotasunean finantzatzea lortu eta 5 urte baino gehiagoko ibilbidea hasi genuen. Gaur egun, proiektua landu beharreko arlo guztietara zabaldu da. Merkataritza, ostalaritza, hezkuntza eta zerbitzu orokorretako entitateez gain, Udala bera, herriko alderdi politiko gehienak eta hainbat entitate soziokultural ari dira euskararen erabilera handitzeko urratsak egiten. Arinago batzuk, motelxeago beste batzuk, baina guztiak norabide egokian.

Gainera, gero eta euskara gehiago entzuten omen da Barañáin. Hala ageri da, behinik behin, Bat soziolinguistika aldizkariaren 2007ko iraileko alean. Bertan, 2006ko udazkenean Barañáin eta Nafarroako beste 12 udalerritan euskara kalean zenbateraino erabiltzen zen jakiteko egin zen neurketaren berri ematen da. Gure herriari dagokionez, 2001ean karrikan entzundako elkarrizketen %2,8 izan zen euskaraz, 2006koan, berriz, %4,1 (%1,3ko igoera). Helduen erabilera %5,4koa zen 2006an, bost urte lehenago, aldiz, %3,4koa. Haurren eta gazteen datuak ere hobekak dira 2006ko neurketan 2001ekoan baino. Aipa dezagun, azkenik, Iruñerriko daturik hoberenak direla Barañaingoak.

Berri pozgarria, beraz. Pentsatzekoa da Bai Euskarari egitasmoak igoera horri lagunduko ziola, euskararen erabilera idatzia handitzeari bezalaxe. Dena dela, orain arteko bidean oztopoak eta zailtasunak ere izan dira, batez ere administrazioaren alorrean. Horren erakusgarri da 2007ko otsailean eta martxoan Udalak onarturiko zenbait neurri azken bururaino eramateko nekeak. Horrexegatik, nekeak gorabehera, bat egin nahi dugu Udalak berriz ere egin duen "Nirekin euskaraz" kanpainarekin, dei eginez Barañaingo euskaldun guztiei Udalean ere beti euskaraz egin dezaten, ahoz zein idatziz.

**S**eis años. En noviembre del año en curso se cumplirán 6 años desde que se puso en marcha el proyecto Bai Euskarari en Barañáin. Adaptamos la metodología (basada en planes de Calidad) propuesta por Kontseilua (Consejo de los Organismos sociales del euskera) a nuestro municipio, el Ayuntamiento financió en su totalidad el proyecto y comenzamos una andadura que ya lleva más de 5 años. Hoy día el proyecto abarca los sectores de Comercio, Hostelería, Educación y, además del de Servicios Generales, el propio Ayuntamiento y casi todos los grupos políticos y entidades socioculturales dan pasos para fomentar el uso del euskera, unos más rápido, otros de forma más pausada, pero todos con el objetivo de promocionar el uso del euskera en nuestro municipio.

Además, todo indica que en Barañáin se escucha más euskera, tal y como se desprende del estudio que publica la revista de sociolingüística Bat en el ejemplar de septiembre de 2007. En dicho estudio, realizado en otoño de 2006 en Barañáin y en otros 12 municipios de Navarra, se mide el uso del euskera en la calle. En lo que se refiere a nuestro municipio, en el año 2001, de las conversaciones medidas, el 2,8% fueron en euskera; en el año 2006 el 4,1% (una subida del 1,3%). El uso en adultos fue del 5,4% en el 2006, en cambio cinco años atrás era del 3,4%. Los datos referidos a los niños y a las niñas, y los jóvenes, también son mejores en la medición del año 2006 que en la del 2001. Señalar, finalmente, que los datos obtenidos en Barañáin son los más destacados de la Comarca.

